

# Beste aldera begiratzea//Mirar hacia otro lado



Beste aldera begiratzea oso jarrera gizatiarra da nola heldu ez dakigun arazo bat aurrean dugunean, ikusten ez dugun hori existituko ez balitz bezala. Kontua da errealitatea tematia dela, gailendu egiten dela, eta lehenago edo beranduago, albo batera uzten dugun hori, ustez horrela ez duela guregan eraginik izanen, nahasi eta menperatu egiten gaituela; bada beste aukera bat: arazoari aurre egitea, aztertzea eta konponbideak bilatzea. Ez gaitezen engaina, pasibotasuna, berez, erabaki oso bat da, deus ez egitea ekintza moduko bat da eliteak modu inposatzailean diseinatu izan den hori onartzen duena. Ekintzarik eza ez dago ondorioetatik salbu.

Bazetorren krisiaren fase berria COVID 19aren ondoren areagotuko da: klima-aldaketa, desberdintasunen hazkundea, egiturazko langabezia, pobrezia; horiek guztiak nagusi den eredu ekonomiko eta sozialari atxiki zaizkion kontzeptuak, gainditzen gaitu. Ez dugu kontuan hartzen desberdintasunean oinarritutako sistema hau ezin dela mantendu gure inplikazio zuzenik gabe. Proiektuaren funtsezko parte gara. Hori iraultzea ez dagoela gure eskuetan uste faltsuan bizi gara, eta kontzienteki edo ez, datorren hondamendian kolaboratzen ari gara. Hazkundearen gezurrezko tesia hartzen dugu kontuan hobekuntza gisa, ez hobekuntza-maila aldetik, baizik eta jarrera kontsumistatan hipotekatutako bizi-baldintzen aldetik: kontsumoaren hiperbolea. Horrek, “daukazuna zara” gizarte-balorazio interesatuan laburbiltzen dena, beste alde batera begiratzuz, aurre egin nahi ez diogun arazoa irudikatzen du; izan ere, pentsatzen dugu bizi-premien ginetik lan eginez, lan-ingurunean eta gizarte-ingurunean lehiatuz, merkaturako ekonomia hain ongi saltzen duen gizarte elitista faltsu horrengana iritsiko garela. Beharren ginetik lan egitea potentzia handiko ibilgailu hori erosteko; kostaldeko etxea; mendialdekoa; luxuzko helmugetan oporretan egotea, lan gehiago eginaraziko diguna mantendu ahal izateko, bizitzak produkzio-ordu luzeen artean ihes egiten duen bitartean.

“Zerbait erosten duzunean, ez duzu diruarekin erosten, diru hori edukitzeko gastatu duzun denborarekin erosten duzu”. Pepe Mujicaren esaldiak aberastasunari eta lanaren kalitateari buruzko premiazko hausnarketa azaltzen du. “Denbora urrea da” esaldiaren maximak “denbora bizitza da” esaldian bihurtzen du, denboraren garrantzian eta honen kudeatzean benetan garrantzitsuak diren bizitza-gaien gainean eraginez, neurriz gaineko ekoizpenean aritzeak mugatu egiten dizkiguna. XXI. mendean eroso bizitzeak ez du ahalegin handirik eskatzen oinarritzko beharrak aseta baditugu, eta

horretara, gure indibidualtasunetik, lanaren banaketa ekarpen erabakigarria da komunaren balioan. Lan egitea eskubidea da, eta ez zorzea. Lan gutxiago egitea guztiok lan egiteko, guztiok duintasunez bizitzeko behar adina diru-sarrerara ditugula bermatuz, berogailua piztea hotz egiten badu, etxebizitza baten gastuei aurre egiteko gaitasuna izatea, eta egunero janaria mahaian edukitzea.

Pandemia-garai honek gizartea eta komunaren indarraren balioa nabarmentzen ditu. COVID-19 aliatu bezala agertzen zaigu politika liberalen salaketan eta azpiegitura handietan egindako inbertsio "estrategikoen" erabilgarritasunik ezan, oinarritzko bizi-premiekin lotuta daudenen kaltetan. Garai pandemiko honek iraunkortasunaren bidea erakusten digu, oraina birpentsatzeko beharra etorkizuna bermatu nahi badugu. Gure eskuetan dago. Gizakia ez da ulertzen kolektiboa gabe, taldea gabe. Gure arbasoek oso ongi zekiten hau: auzolanean lan egitea, une zailetan babestea, izan dira biziraupenerako gakoak.

Gure auzokideak ezagutzen ez ditugun hirietan bizi gara, mundua gure inguru hurbilenean hasi eta amaitzen dela uste dugu, bakarrik deus ez garelaz bazter utziz. Batak bestearen beharra dugu, gure ingurunea behar dugu, eta honek behar gaitu. Nonbaiten baldin bada aukera, taldean, komunitatean, kolektibo gisa pentsatzean eta funtzionatzean datza. Ezin dugu onartu miseria eta pobrezia gizartean ezartzea, horrela bakarrik jakinen dugu salbu gaudela; eta, horretarako, guztiok inplikaturako gaituzten irtenbideak bilatu behar ditugu. Jakina, lanaren Banaketa, berez ez da nahikoa, baina lan gutxiago egitea guztiok lan egiteko, aparteko orduekin amaitzea, enplegu-aniztasunarekin amaitzea; etxeko lana banatzea, zaintza-lanak... araua haustea da, gizarte justuago bat eraikitzen hasteko.

---

Mirar hacia otro lado, actitud muy humana cuando tenemos delante un problema que no sabemos cómo abordar, como si aquello que no vemos, no existiera. Solo que la realidad es tozuda, se impone, y tarde o temprano, aquello que obviamos creyendo que así no nos afectará, termina por complicarnos y someternos; hay otra opción: afrontar el problema, analizar y buscar soluciones. No nos engañemos, la pasividad es en sí misma toda una decisión, el no actuar es un modo de acción, que asume aquello que de manera impositiva ha sido diseñado por las élites. La inacción no está libre de consecuencias.

La nueva fase de la crisis que venía se acentuará tras la COVID 19: el cambio climático, el crecimiento de las desigualdades, el paro estructural, la pobreza; conceptos todos ellos inherentes al modelo económico y social imperante, nos supera. Ignoramos que este sistema, basado en la desigualdad, no es capaz de sostenerse sin nuestra implicación directa. Somos parte sustancial del mismo. Vivimos en la falsa creencia que no está en nuestras manos revertirlo y conscientemente o no contribuimos al desastre que viene. abrazamos la falaz tesis del crecimiento como mejora, no de nivel, sino de condiciones de vida hipotecadas en actitudes consumistas: la hipérbole del consumo. Esto, que se resume en la valoración social interesada de "eres lo que tienes", ilustra el problema al que, mirando a otro lado, no queremos hacer frente, porque pensamos que trabajando por encima mismo de las necesidades de vida, compitiendo en el entorno laboral y social, alcanzaremos

esa falsa sociedad elitista que vende tan bien la economía de mercado. Trabajar por encima de las necesidades, para comprar ese vehículo de gran potencia; la casa de la costa; de la montaña; la estancia vacacional en destinos de lujo, que nos hará trabajar más para poder mantenerlo, mientras la vida se escapa entre las largas horas de producción.

“Cuando usted compra algo no lo compra con plata, lo compra con el tiempo de su vida que gastó para tener esa plata”. La frase de Pepe Mújica ilustra sabiamente sobre la necesaria reflexión en torno a la riqueza y calidad del trabajo. La máxima de “el tiempo es oro” la revierte en “el tiempo es vida”, incidiendo en la importancia del tiempo y la administración del mismo sobre las materias de vida verdaderamente importantes, que la dedicación a la producción exacerbada nos limita. Vivir confortablemente, en el siglo XXI, no requiere grandes esfuerzos si tenemos las necesidades básicas cubiertas, y a ello desde nuestra individualidad, el reparto del trabajo, es una contribución decisiva en el valor de lo común. Trabajar es un derecho y no una suerte. Trabajar menos para trabajar todas, garantizando que todas y todos tengamos los ingresos suficientes que nos permitan vivir con dignidad, encender la calefacción si hace frío, capacidad para afrontar los gastos de una vivienda, y comida en la mesa todos los días.

Este tiempo de pandemia ha puesto en valor lo social y la fuerza de lo común. La COVID-19 se muestra como aliada en la denuncia de las políticas liberales y la inutilidad de las inversiones “estratégicas” en grandes infraestructuras, en detrimento de las que están relacionadas con las necesidades básicas de vida. Este tiempo pandémico nos muestra el camino de la sostenibilidad, de la necesidad de repensar el presente si queremos garantizar el futuro. En nuestras manos está. El ser humano no se entiende sin el colectivo, sin el grupo. Esto lo sabían muy bien nuestros antepasados, trabajar en auzolan, apoyarse en momentos de dificultad, han sido las claves para la supervivencia.

Vivimos en ciudades en las que no conocemos a nuestro vecindario, creemos que el mundo empieza y termina en nuestro entorno más inmediato, ignorando que solas y solos no somos nada. Nos necesitamos, necesitamos de nuestro entorno, y este nos necesita. Si en algún lugar está la alternativa, es en el grupo, en la comunidad, en pensarnos y funcionar como colectivo. No podemos permitir que la miseria y la pobreza se instauren en la sociedad, solo así nos sabremos a salvo; y para esto, tenemos que buscar soluciones que nos impliquen a todas y a todos. Evidentemente el Reparto del trabajo, por si solo no es suficiente, pero trabajar menos para trabajar todas, acabar con las horas extras, con el pluriempleo; repartir el trabajo en el hogar, en los cuidados... , es romper con la norma para comenzar a construir una sociedad más justa.